

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

**UMOREAREN PEDAGOGIA EMAKUME MONOMARENTAL
MIGRATUEKIN ESKU-HARTZEKO**

Egilea: Olatz Urrutiaziorraga Mendiola

Zuzendaria: Amaia Eiguren Munitis

Leioan, 2021eko ekainaren 1ean

A U R K I B I D E A

| | |
|---|-----------|
| Sarrera | 2 |
| 1. Bazterkeria emakume aurpegiarekin | 3 |
| Bazterkeria areagotzen dituzten alderdiak | 4 |
| Umorea tresna pedagogiko gisa | 8 |
| Umoreak errealitatera salto | 9 |
| 2. Esku-hartzea | 10 |
| 2.1. Diagnostikoa | 10 |
| 2. 1. 1. Testuinguruaren eta protagonisten inguruko informazioa | 10 |
| 2. 1. 2. Informazioa biltzea eta aztertzea | 12 |
| 2. 2. Diseinua/plangintza | 15 |
| 2. 2. 1. Beharrianak identifikatzea, justifikatzea eta lehenestea | 15 |
| 2. 2. 2. Beharrianak helburu bihurtzea | 15 |
| 2. 2. 3. Esku-hartzeko aukera metodologikoa proposatzea | 16 |
| 2. 2. 4. Esku-hartzearen plangintza | 17 |
| 2. 2. 5. Ebaluazioa | 18 |
| 2. 3. Abian ezartzea | 20 |
| 3. Ondorioak | 21 |
| 4. Erreferentzia bibliografikoak | 23 |
| Eranskinak | |
| I. Eranskina: umorearen funtzio pedagogikoak | |
| II. Eranskina: guraso bakarreko familien arteko arrakala | |
| III. Eranskina: emakumeen profila | |
| IV. Eranskina: Ailara eguneko zentroaren kokalekua | |
| V. Eranskina: praktika onen irizpideak | |
| VI. Eranskina: ekintzen kronograma | |
| VII. Eranskina: ekintzen zehaztapenak | |
| VIII. Eranskina: baliabideen zehaztapenak | |
| IX. Eranskina: proiektuaren gastuak | |
| X. Eranskina: ebaluazioaren zehaztapenak | |
| XI. Eranskina: behaketa erregistroaren txantiloia | |
| XII. Eranskina: ahotsak grabatzeko baimenak | |

UMOREAREN PEDAGOGIA EMAKUME MONOMARENTAL MIGRATUEKIN ESKU-HARTZEKO

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia umorearen bitartez emakume monomarental eta migranteekin esku-hartzea da. Horretarako, emakume hauen egunerokotasunean egon eta umorearen inguruko informazioa jaso ondoren, ekintza batzuk diseinatu dira, zeintzuk Garapen Jasangarriko Helburuak oinarri dituzten. Horrez gain, eta esku-hartzea Gizarte Hezkuntzari bideratzeko asmoarekin, ekintzak bost emakumerekin burutu dira esku-hartzearen bideragarritasuna frogatuz. Lortutako emaitzekin umorearen pedagogiaren funtzioak, bazterkeria egoeretan dauden emakumeen garapenerako onuragarriak direla ikusi da.

Umorearen pedagogia, familia monomarentalak, emakume migranteak, bazterkeria egoera, Gizarte Hezkuntza

El objetivo principal de este Trabajo de Fin de Grado es la intervención con mujeres monomarentales y migrantes a través del humor. Para ello, tras estar en el día a día de estas mujeres y recibir información sobre el humor, se han diseñado unas acciones que tienen como base los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Además, y con la intención de orientar la intervención a Educación Social, las acciones se han llevado a cabo con cinco mujeres demostrando la viabilidad de la intervención. Con los resultados obtenidos se ha visto que las funciones de la pedagogía del humor son beneficiosas para el desarrollo de las mujeres en situaciones de exclusión.

Pedagogía del humor, familias monomarentales, mujeres migrantes, exclusión social, Educación Social

The main purpose of this Adoption Work is the engagement with monomarental and migrant women through humor. To this end, after being daily with these women and receiving information about the mood, some actions have been designed based on the goals of sustainable Development. Besides, with the intention of directing intervention to social inclusion, actions have been carried out with five women demonstrating the viability of the intervention. With the results obtained, the functions of the pedagogy of humour have been found to be beneficial for the development of women in a state of neglect.

Mood pedagogy, monomarental families, migrant women, exclusion situation, Social Welfare

Sarrera

Bizitzan umorearen inplikazioa ezinbestekoa da sortzen diren oztopoei aurre egiteko. Hala ere, ez da soilik errealitatetik ihes egiteko tresna gisa erabiltzen, jasotzen diren sententzioak kudeatzeko eta elkarren arteko harremanak estutzeko ere baliogarria da umorea (Rodríguez, 2002).

Hori dela eta, umorearen bitartez eta modu berean GRAL (Gradu Amaierako Lana) honen bitartez, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) bete daitezkeela antzeman da, beste era batera esanda, giza garapenaren alde borrokatzeko asmoak ase daitezkeela. Alde batetik, txostenaren lehenengo helburua, pobrezia desagertzearen helburua (Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusia, 2015), lantzen da. Kasu honetan, ahultasun egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzen da, babes soziala eta zerbitzuak eskainiz.

Beste alde batetik eta aurrekoari loturik, lan honek pobrezia feminizazioaren fenomenoari heltzen dion heinean bosgarren helburua ere betetzen da. Emakumeen ahalduzko prozesuari hasiera eman nahi dio GRAL honek, indarkeria eta diskriminazio egoerak tratatuz eta hauek sortzen duten egoeraz jabetuz (Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusia, 2015).

Gauzak horrela eta GJH kontuan hartuta, bazterkeria egoeretan dauden emakume monomarental eta migratuekin lan egingo da umorearen bitartez. Egoeraren errealitatea zein den ikusita eta honek eskatzen duen lana antzemanda, gai hau jorratzea ezinbestekoa ikusi da emakume hauen garapenerako.

Zalantzarik gabe, umoreak duen funtzio pedagogikoaren bidez, emakumeen arteko sarea sortu da, eta aurkeztu zaizkien bazterkeria egoera ezberdinez jabetu dira GJH betez.

1. Bazterkeria emakume aurpegiarekin

Bazterketa egoeran dauden pertsonen baldintza sozial, ekonomiko edo kulturek arlo publikoan parte-hartzera mugatzen dituzte eta, era berean, administrazioarekin komunikatzera (Camacho, 2015). Hain zuzen ere, subjektuaren eta gainerako jendartearen arteko desberdintasun-harremana, eskubide sozial jakin batzuk (berezi arriskuen babesarekin lotutakoak) ez edukitzearen edo ez eskuratzearen ondoriozkoa, pertsona egunean bizitzera edo jendartearen ertzetan bizirautea bultzatzen

duena da bazterkeria egoera. Beraz, bazterkeria eragiten duten erreferentzia ekonomikoak gainditu egiten ditu doktrinak, besteak beste, etxebizitza eskuratzeko aukerarik eza, hezkuntza eskuratzeko arazoak, parte-hartzea eta osasuna, herritarren estatusa duintzen duten beste baliabide batzuen txertaketarekin batera (Poleo, 2016).

Aurretik azaldutakoari indarra eman nahian, bazterkeriaren aurpegi nagusiaren erakusketa argia dator ondoren, zehazki, emakumearen profilarekin loturikoa. Izan ere, baliabide ekonomikoak, baliabide naturalak, denboren banaketa edota boterea eskuratzeari dagokienez arazoak dituzte, eta hori dela eta, emakumeek jendartean duten parte-hartzearen mendeko izaerak, adibidez, jabetza baliabide ekonomiko, sozial eta politikoen kontrolera iristeko dituzten aukerak mugatzen ditu (Comisión Económica para América Latina y el Caribe, 2004).

Emakumeek dituzten muga horien zergatia, hau da, emakumeen egoera aurrekoa izatera bultzatzen duena, genero binarismoaren kontzeptua da, androzentrismoarekin batera. Berehalako ohartarazpena eredu binario horri buruzko antolamendu hierarkikoa izan zen. Horrenbestez, kultura eta aro desberdinen arabera "emakume izateko" eta "gizon izateko" moduak askotarikoak badira ere, "emakume izatea" osatzen eta ezaugarritzen duten elementuak eskalaren behealdean kokatu dira nagusiki (Costa, 2006).

Genero-azterketetatik abiatuta, gure kulturaren izaera androzentrikoa nabarmenki baieztatu dezakegu, gizona izan baita gauza guztien neurri "neutroa". Horren adibide gisa, Carrascok (2018), emakumeek eta gizonek posizio desberdinak eta desorekatuak dituztela azaltzen du¹; aurretik esan bezala, gizonekin alderatuz emakumeek erabaki ekonomiko eta politikoen prozesuetako parte-hartzea gutxitzea dakarrelarik. Orobat, emakumeen jendarte bazterketak, alde batetik, arazo horien definizioaren eta arazo horiek konpontzeko ezarri diren politiken arteko harremanekin du zerikusia; eta beste alde batetik, emakumeek eta gizonek jendartean duten posizio desberdinek, baliabideak eta boterea eskuratzeko aukera desberdinekin (de la Cal, 2009).

Gauzak horrela, bazterkeriak emakume aurpegia duela esan daiteke, honen ondorio nagusienetarikoa generoaren binarismoak dakarren androzentrismoa izanik. Egoera honetan egotearen faktorerik nagusia generoaren binarismoa bada ere, honen

¹ Genero-harremanak sozialki eraikiak direla ulertzea, eta ez biologikoki eskuratuak direla ulertzea garrantzitsua da, izan ere, alda daitezkeenaren seinale da (Carrasco, 2018).

ondoriozkoak diren beste faktore batzuek ere eragin handia dute, besteak beste, pobreziak, prostituzio egoerak, tratu txarrek eta lan eremuak.

Bazterkeria areagotzen dituzten alderdiak

Aipatu bezala, generoari estuki loturik dauden bazterkeria mota asko daude, haien artean harreman zuzena daukatena. Aurrerago aztertuko den bezala, ikusiko da, lan munduak eragina izango duela pobrezia eta prostituzioarekin, eta faktore hauek guztiek, emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrekin.

Lan eremua arrisku faktore gisa ulertzeko, denboran atzera egitea eta Silvia Federiciren (2017) lanketa kontuan hartzea ezinbestekoa da. Bi mende atzera eginez, hain zuzen ere, 1840tik aurrera, ia txosten guztietan emakumeek fabriketan ematen zituzten lan orduen murrizketa aipatzen zen, etxeko lanetan ahalik eta trebeen izan zitezten. Etxeko andreen papera erregimen berri baten parte izan zen Lehen Mundu Gerran, non hauen zeregina dirua neurritz erabiltzea eta haurren eta gizonen ongizatea bermatzea zen. Horren ondorioz, hau da, langile-klaseko familia eredu berri baten sorkuntzaren ondorioz, emakumeak meategietan lan egitea galarazten zuen legea onartu zen, eta horrekin batera, erreforma berri bat etorri zen. Bertan, soldatarik gabeko etxeko lanen alde egin zen, hain zuzen ere, emakumeek ez kobratzearen lanaren alde.²

Hortik gutxira, 1870ean, soldata arrakalaren sorkuntza ekarriko zuen garaia iritsi zen (Federici, 2017): gizonzkoek % 40 gehiago kobratzetik emakumeek ezer ez kobratzera igaro zireneko garaia. Hitz gutxitan esanda, soldataren patriarkatuaren sorrera hasi zen, non soldatak gizonari boterea ematen zion eta gizona emakumeak egiten zuen lan ez ordainduaren ikuskatzaile bihurtzen zen. Eta, aldi berean, gizonzkoari emakumea diziplinatzeko boterea ematen zion (García, 2016). Gaur egungo errealitatetik ez gaude oso urrun. Nahiz eta emakume askok lantegietan lan egiten duten, sexuaren araberako urteko batez besteko irabazia, 31.001 eurokoa da gizonentzat, eta 23.428 eurokoa emakumeentzat (Eusko Jaurlaritza eta Emakunde, 2020); honek, soldata-arrakala eta soldataren patriarkatua betikitzen dituelarik. Edozein

² Egoera honek, etxeko lanaren definizio argia ekarriko zuen: ordaindu gabeko etxeko-lanak eta zaintzak, pertsonen biziraupenerako ezinbestekoak edo beharrezkoak diren jarduerak nahiz eginkizunak dira, eta ez dira jarduera produktiboen barruan sailkatzen (Eustat, 2020). Zainketa lanak eta ordainduak ez diren beste zenbait lan ez dira jendarteak "lan" hitzagatik ulertzen dutenaren barruan sartzen, eta horrek emakumeen langabezia tasa irrealaren hazkundera dakar.

modutan ere, lanbideak eta lanpostuak sexuaren arabera sailkatzen jarraitzen dira, eta banaketa horrek emakumeei aukera asko mugatzen dizkie (Ribas, 2004).

Aurrekoaren harira eta hierarkia patriarkalaren barruan jarraituz, emakumeek lan munduan eduki dezaketen postuaren eraginez, ahultasun ekonomikoa eta bizi-aukera mugatuak izateko probabilitate gehiago dituzte, emakumeen egoera are gehiago zaurgarrituz. Egoera hori emakumeek pairatzen duten bigarren arrisku faktorearen eragile da (Davidson, 1998; in Sanchez, 2012), alegia, pobrezia egoeran egotearen eragilea.

Horrenbestez, emakumeen esparrura hurbiltzen garen neurrian lan baldintzek okerrera egiten dute, pobrezia feminizazioaren kontzeptua egia bihurtuz. Hau da, emakume batek gizonezkoekin alderatuz pobre izateko duen probabilitatearen hazkundera egia bihurtzen da (Martínez, 2005); beraz, emakume bat soilik emakume izateagatik, gizonezko batek baino probabilitate altuagoa izango du pobrezia egoeran bukatzeko. Kontzeptu honen euskarri gisa, Kabeer (1997) autoreak ondorengoa baieztatzen du:

Poverty has not always been analyzed from a gender perspective. Prior to the feminist contributions to poverty analysis, the poor were either seen as composed entirely of men or else women's needs and interests were assumed to be identical to, and hence subsumable under, those of male household heads. [Pobrezia ez da beti genero ikuspegi batetik aztertu. Pobrezia feminizazioaren analisi feministaren aurretik, behartsuak gizonez osaturik ikusten ziren, edo emakumeen hondar-interesek, eta, beraz, azpian subsumitzeko modukoak zirela uste zen]. (1.orr).

Honekin bat eginez eta aurrekoa kontuan hartuz, pobrezia egoera arrisku faktorea dela baieztatu daiteke, batez ere, emakumeengan. Hala ere, egoera honek, arriskutsuak diren beste faktore batzuk pairatzera darama, adibidez, prostituzio egoera.

Bazterkeria egoera guztien artetik, pobreziarekin batera, prostituzioa da emakumeek paira dezaketen bigarren arrisku faktorea (Davidson, 1998). Emakumeek aukerarik ez izateak eragiten duen pobrezia feminizazioak, prostituzio egoeran dagoen pertsonaren profilarik ezaugarri bereizgarrienak ezartzen ditu, hala nola, emakumeak, etorkinak, hezkuntza-maila txikia dutenak, baliabide ekonomiko gutxi dituztenak eta egoera irregularrean daudenak (Asociación para la Prevención y Reinserción de la Mujer Prostituida, 2005). Egia da ez dela zertan kausa-ondorioa izan,

pobrea izateak prostituzio egoerara bideratzen duela emakumea edota alderantziz, prostituzio egoeran egoteak pobrea izatea dakarrela (Britos, 2009). Dena dela, Sanchezek (2012) egindako ikerketaren arabera, prostituzio egoeran dauden emakume gehienek errekurtso ekonomiko urriak dituzte, aurretik aipatutako beste ezaugarri batzuen artean.

Prostituzioa, kausa-ondorioren batetik ez datorrela ulertzen bada, hau da, inolako gabeziarik gabe era libre batean aukeratzen den egoera gisa ulertzen bada, ez da inoiz onartuko ez dela sexu-askatasunaren adierazpen bat; aitzitik, indarkeriarekin, marjinazioarekin, zailtasun ekonomikoekin eta kultura sexista eta patriarkalarekin zerikusia duela ulertuko da (Asociación para la Prevención y Reinserción de la Mujer Prostituida, APRAMP, 2005). Horrek horrela jarraitzen duen neurrian, gizonek kontrola izaten jarraituko dute, ez bakarrik etxean edo eremu pribatuan, baita eremu publikoan ere; generoaren arabera ezarritako balio-ordena baten jarraipena bermatuz, eta emakumeen gaineko kontrol- eta botere-mekanismo garrantzitsu gisa hartuz, zeinean ordaintzen duenak agintzen duen (Juliano, 2002; Pérez eta Montalvo, 2011).

Ikusi bezala, emakumeek paira ditzaketen bazterketa-egoera guztietan oso presente daude tratatu txarrak, bai genero indarkeria bai indarkeria instituzionala. Hortaz, indarkeria fisikoa eta psikologikoa emakumeek pairatzen duten arrisku faktoreetako bat da. Nolanahi ere, Espainiar Gobernuako Berdintasun Sailak (2019) aurreko baieztapena egiaztatzen du 2019.urtean aurrera eramanez inkestan ateratako emaitzekin. Bi emakumeetatik batek, soilik emakume izate hutsagatik, haien bizitzan zehar nolabaiteko indarkeria pairatu zuela nabarmentzen da, hain zuzen ere, Espainiar estatuko % 57,3k (11.688.411 emakumek). Horietatik 7.190.394 emakumek indarkeria fisikoa zein sexuala sufritu dute.

Indarkeria, betidanik, eraso fisiko gisa ulertua izan da, edo gutxienez modu horretan onartu izan dute instituzioek. Izan ere, zigor-manuak indarkeria psikikoa erabiltzea zigortzen du, eta ez lesio psikikoak eragitea; horrek kontzeptu juridiko zehaztugabea eta definitzen zaila planteatzen du (Valcarce, 2000). Hala ere, tratatu txar psikologikoa fisikoa baino handiagoa da, eta horien larritasun-mugak indarkeria fisikoaren ondoriozkoak baino handiagoak dira (Quintero et al., 2008). Sintomak ez dira lesio fisikoak bezain nabarmenak, baina arrisku larria da biktimen osasunerako; izan

ere, ondorio psikologikoen luzaroago irauten dute eta sendatzeko tratamendu luzea behar izaten dute (Perela, 2010).

Aipatu moduan, indarkeria kolpe forman soilik pairatzen ez den arren³, indarkeria eredia izaten jarraitzen du, eta beraz, bazterketa egoera nagusitzen duen beste arrisku faktore bat bilakatzen da.

Azken finean, marjinazio egoera emakume askoren errealitatea da, eta horregatik, ez da ahaztu behar bakoitza bere prozesuaren jabe izatea zeinen garrantzitsua den (Asociación Estatal de Educación Social eta Consejo General de Colegios de Educadoras y Educadores Sociales, 2007). Dena den, bazterketa egoera guztiei amaiera emateko gizonetakoak dituzten abantailen zergatiaz konturatu behar dira, horiek alde batera uzteko prozesuari hasiera emateko (Lozoya, 2016). Mota honetako prozesuek denbora luzea eta lanketa sakonak dakartzate, hala ere, abantailen onarpenetatik at, egunerokotasunari begira aldaketak sorrarazteko tresnak ere badaude.

Izaera pedagogikoa duten tresnen bilaketan, Pamela Palencianok (2018) argi utzi zuen umorea dela bilaketa horren emaitza. Bakarrizketetan zein egunerokotasunean, pairatutako genero-indarkeriak utzitako ondorio psikologikoak gainditu ahal izateko, umorea tresna gisa erabiltzen hasi zen honek ematen dituen onura guztiak aprobetxatuz.

Umorea tresna pedagogiko gisa

Umoreak bere bilakaeran, emozio hedoniarra eragiten du, hitz gutxitan esanda, barrea; hortaz, umorea barrearen kausa gisa uler daiteke. Gauzak horrela, tresna askatzailearen eta erresistentziaren adierazle gisa ere hartu daiteke, betiere, beldurraren gaineko garaipen iragankor bat ahalbidetzen badu (Berger, 1998; in Álvarez, 2017).

Era berean, Martinen ustez (2008; in Damian, 2014), umoreak, emozioak erregulatzeko mekanismo gisa, eragina du epe laburrean, honako helburu hauek lortuz: sentimendu positiboak, poztasuna eta ongizatea areagotzea, hautemateko eta kontrol handiagoa izateko gaitasuna handitzea, sentimendu negatiboak murriztea (hala nola, haserrea, depresioa edo antsietatea), eta emozio negatiboak arintzen laguntzea. Bestalde, umoreak, epe luzerako emozioak erregulatzeko mekanismo gisa ere eragina du bai autoestimua eta ongizate emozionala sendotzen, bai pertsonen arteko harreman egokiagoak hobetzen.

³ Kalitatezko bizitza edukitzera heltzeko pasa behar izan dituzten barrera guztiek, kanpotik ikusten ez den marjinazioa sortzen dute, emakumeen autoestimuan eta autokontzeptuan eraginez (Romo, 2007/2008).

Erabilera egokira bideratutako umoreak hezitzaileei, lortu nahi diren helburuak lortzeko tresna bezala balio diezaieke, hau da, umoreari esker, irakatsi eta ikasteko prozesuak estimulatu eta aberastu egiten dira (Droin, 1993). Honi loturik, Damianek (2014), gizarte hezitzaileen lanean umoreak balio pedagogikoa duela baieztatzen du eta horretarako honen erabileraren zergatia azaltzen du. Lehendabizi, ezkortasuna, desengainua eta pasibotasuna berezkoak dituen jendarte batean, ezinbestekoa da hezitzaileok hezigaiei itxaropenez eta errealismoz betetako mezuak bidaltzea, eta umoreak horretarako espazioa uzten du (Marin, 1984; Damián, 2014). Bigarrenik, harreman soziohezitzaileari erreparatuz, bestelako lotura sortzen du; beste era batera esanda, egunerokotasunean sortzen diren arazoak eta gatazkak lasaitzea lortzen du. Eta azkenik, sormenerako eta irudimenerako tresna baliagarria da, umore-senak proposamen soziohezitzaileak motibatzen dituzten hainbat zeregin egitera bultzatzen baikaitu.

Dena den, ez da soilik profesionalen lanari zuzendutako tresna pedagogikoa, lanean ari garen pertsonengan ere eragin handia du. Hauen auto-onarpena eta anti-perfekzionismoa sustatzeaz gain, eguneroko bizitzako arazoak konpontzen laguntzen du gauzak bere ikuspegi zuzenetik kokatuz (Ellis eta Grieger, 1981). Egia da, planteamendu soziohezitzaile orotan, hezigiaren testuingurua kontuan hartu behar dela aipatutako onurek haien funtzioa egin dezaten (ASEDES eta CGCEES, 2007).

Halaber, hezkuntzaren eremuan aplikatutako umore motibatzaileak, aldez aurretik diseinatutako hezkuntza-helburuak lortzeko proposatzen diren helburuak, materialak eta edukiak adieraztean oinarritzen denak (Damián, 2014), balio pedagogiko izugarria duten hainbat funtzio betetzen ditu (Rodríguez, 2002), hala nola, funtzio motibatzailea, funtzio fisiologikoa, adiskidetasun-funtzioa, distentsio-funtzioa, dibertsio funtzioa, defentsa-funtzioa, funtzio intelektuala, sormen-funtzioa, funtzio soziala, funtzio terapeutikoa eta funtzio pedagogikoa eta didaktikoa⁴.

Umoreak errealitatera salto

Umorea bazterkeria egoeran dauden emakumeekin esku-hartzeko tresna gisa erabiltzea ez da ohikoa; hala ere, instituzio eta profesional askok hauek lotzeko pausuari ekin diote. Adibide gisa, Pamela Palenciano profesionala, zeinek bakarrizketaren bidez, bizitako genero-indarkeria kontatzen duen, xehetasun txikienetik handienera arte

⁴ Ikus I. eranskina: umorearen funtzio pedagogikoak

(Loureda, 2018). Kasu honetan, Pamelak bakarriketaren bitartez, emakume askorekin zeharka esku-hartzen du. Izan ere, bere metodologiaren bidez bere historia kontatzeaz gain, emakume askori indarra eta balorea transmititzen die, genero-indarkeria pairatzearen egoeratik irteteko aukera dagoela erakutsiz.

Pamelaz aparte, zenbait instituziok, esaterako Madrileko Komunitateko Zerbitzu Sozialak, 2011.urtean risoterapia-tailer bat antolatu zuten jendarte-bazterkeria jasateko arriskuan zeuden emakumeentzat. Honako honek, blokeo emozionalak ezabatzeko, autoestimua areagotzeko eta optika baikorra izateko aukera eman zien.

Dena den, zerbitzu sozialak ez dira mota honetako proiektuak burutzen dituzten bakarrak, José Ramón Díazek profesionalak ere emakumeentzako tailerrak aurkeztu ditu, non hartzaileak Emakumeen Etxeak eta Emakumeen Elkarteak diren. Umorea aintzat harturik, gaitasun eta konpetentzia sozioemozionalak garatzea du helburu; beti ere, emakumeak bere burua unitate gisa ezagutzeko asmoarekin (Damián eta García, 2010).

Ikusia denez, identifikatutako beharrei aurre egiteko umorearen funtzio pedagogikoa erabiltzen dutenak ere badaude, nahiz eta horren premia oraindik latente egon.

Laburbilduz, profesionalarentzat balore pedagogikoa izateaz gain, gizarte hezitzaile lan egiten duen pertsonarentzat ere bada. Umoreak bazterketa egoeran daudenentzat tresna asko eskaintzen ditu, frustrazioarekiko tolerantzia bultzatzeaz aparte, epaituak izatearekiko beldurra alde batera uzten du, eta honek, arazoaren inguruan mintzatzeko leku segurua eta honekiko ikuspegia aldatzeko aukera eskaintzen die (Damián, 2016). Beraz, umorearen pedagogiaren bitartez, emozioen kudeaketa lantzea posible ikusten da, norbanakoan abiapuntua jarritz, norberaren pentsamenduan eta gainontzekoekin duen harremanetan aldaketak eman daitezkeelako.

2. Esku-hartzea

Aurrekoarekin jarraituz, bazterkeria egoera aldatu ahal izateko, umorea tresna garrantzitsua dela ikusi da. Izan ere, umoreak dakartzan ondorioak ez dira kaltegarriak, are gutxiago, zenbait egoeren aurrean eduki beharreko jarreran eragina du. Gainera, Palencianoren (2018) esperientzian oinarrituz, umorearen ohiko funtzioari, ahalduntzearen funtzioa gehitzea bateragarria dela ikusi da, barregura eragiteaz gain,

ahalduntzeko arma gisa ere erabili daitekeelako; hain zuzen ere, estereotipoen, mitoen eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko arma gisa, batez ere, azken honetarako.

Horiek horrela eta umorearen funtzio onuragarriak ikusita, proiektua aurrera eramateko oinarri bezala erabiliko da.

2.1. Diagnostikoa

2. 1. 1. Testuinguruaren eta protagonisten inguruko informazioa

Proiektu honek, gizarte hezitzaileen bidez, arrisku egoeran dauden emakumeei emozioak kudeatzeko tresnak eman nahi dizkie.

Proiektua aurrera eraman ahal izateko, hartzaileak zehaztu behar dira, eta kasu honetan, emakume monomarental eta migranteekin lan egingo da. Esku-hartzearen nondik norakoekin hasi baino lehen, Espainia eta Euskal Autonomia Erkidego (EAE) mailan, emakume hauen egoera zein den aurkeztea ezinbestekoa da, batez ere, proiektuaren zergatia ulertzeko.

Oraintsuko datuen arabera, Espainian guraso bakarreko familien erdia baino gehiago pobrezia edo jendarte-bazterketa arriskuan daude (Instituto Nacional de Estadística, INE 2015). Izan ere, errenta eta lan-baldintza txarrenak dituztenek (emakumeek) eta guraso bakarreko familiek (% 82 emakumeak) egoera ahulagoa jasaten dute, batez ere ardurapean seme-alabak badituzte (Assiego eta Ubrich, 2015).⁵

EAEen arreta jarriz gero, 2016an, mantentze-pobrezian zeuden guraso bakarreko familien ehunekoa 13,8koa zen, eta familia guztien batez bestekoa %7,1 ekoa (Emakunde, 2018). Izan ere, guraso bakarreko familiei eusten dieten emakumeen artean ere alde handiak daude adinaren eta okupazio motaren arabera, esaterako, lan egonkorrik ez duten 45 urtetik beherako guraso bakarreko familietako emakumeen ia %87 ongizaterik gabeko egoeran daude; hau da, ezin diete gastu arruntei aurre egin bizi-kalitatearen maila egokiei eusteko (Emakunde, 2018). Adin-tarte horretan, ohikoa da seme-alabak txikiagoak izatea eta, beraz, zaintza gehiago behar izatea; hori, laguntza-sare nahikorik gabe, amek lanean jarduteko duten gaitasunaren kalterako izango da.

2014ko datuak gogora ekarriz, Euskadin haur-pobrezia erlatiboaren tasarik handienak dituzten familiak, emakumeak buru diren guraso bakarreko etxeetan eta

⁵ Ikus II. eranskina: guraso bakarreko familien arteko arrakala

atzerriko etxeetan biltzen dira (Alonso eta Marcos, 2017). Horiek horrela, errealitate honen parte emakume etorkinak dira eta kasu honetan proiektuaren parte-hartzaileak. Emakume izateaz gain, egoera irregularrean egoteko probabilitate handia dute, eta horrek bazterkeria egoera areagotzen du (Carretero, 2014). Emakume migratzaile batzuek migrazio prozesu berezi bat bizi dute, harrera herrialdean erreferentzia bakarra erasotzailea delako; beraz, ez dute jendarte sarerik. Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek (2020) diotenez, baliteke administrazio-egoera irregularrean egotea, edo harrera herrialdera familia bateratze prozesuaren bidez iristen badira, erasotzaileari loturiko lan baimena edo bizileku baimena izan dezakete. Baldintza horiek eta beste askok emakume horienganako menpekotasun handiagoa eragin dute, erasotzaileek emakumez baliatzeko estrategia gisa erabiltzen dutelarik. Izan ere, 2019an Espainian jaiotako 1.000 emakumetatik 2,56k indarkeria jasan zuten; aldiz, atzerrian jaiotako 1.000 emakumetatik 20,91k (Eusko Jaurlaritza eta Emakunde, 2020).

Hitz gutxitan esanda, familia eta lana bateragarri egiteko dituzten arazoek dimentsio berezia hartzen dute beren ardurapean seme-alabak dituzten emakume migratuentzat, lana, familia eta bizitza pertsonala bateratu ahal izateko estrategiak errazten ez dituen testuinguru batean (Freixanet, 2010; in Cardona, 2014). Hortaz, atzerrian bizi den familia monomarental batek beste edozein familia baino probabilitate altuagoak ditu bazterkeria egoeran bukatzeko (Alonso eta Marcos, 2017).

Errealitatearen azterketa argi honen ondoren, emakume monomarental eta migratuekin proiektua aurrera eramatea bideragarria ikusi da. Horretarako, Itaka-Eskolapioak fundazioan parte-hartzen duten emakumeekin lan egingo da.

2. 1. 2. Informazioa biltzea eta aztertzea

Erakundeetan gehiago sakontzeko beharrezkin, Itaka-Eskolapioak fundazio bat da, eskolapioen orden erlijiosoak eta senidego eskolapioek sortua eta bultzatuta. Bilboko Eskolapioen Ikastetxean dago Fundazioa, eta hainbat programa garatzen ditu, bai egoitzetan bizi direnei bideratutakoak, bai eguneko zentrorra doazenei zuzendutakoak. Haren helburu nagusia jendarte-bazterkeriaren aurka borrokatzea eta egoera ahulean dauden pertsonak jendarteratzea da. Erakundearen barruan, baliabiderik gabe edota arrisku egoeran dauden pertsona heldu migratzaileen kolektiboarekin lan egiten da gehienbat (Itaka-Eskolapioak Fundazioa, 2017).

Nahiz eta pertsona migratzaileekin bereziki lan egin, erakundeak Beregain programan jartzen du ia arreta guztia, hau da, bizikidetza-unitateetan. Errekurtsoei dagokienez, bi bizikidetza-unitate ditu (Bilboko Deustu eta Castaños auzoetan), bakoitzean hiru familiarentzako lekua dagoelarik. Honen helburu nagusia, bizitzako esparru guztietan haien ahalduntzea eta autonomia lortuz, emakume monomarentalen jendarteratzea eta laneratzea lortzea da.⁶ Horri loturik, haurrerekiko duen harremana sustatzean ere oinarritzen da, txikiaren garapena kontuan hartuz eta emakumearen amatasuna indartuz.

Jakina denez, xede orokor oro betetzeko xede zehatzagoak behar dira. Kasu honetan, haien autoestimurako eta ongizate mentalerako, haurren zainketa lanak burutzeko, laneratze-prozesua lortzeko eta ekonomikoki independenteak bihurtzeko bidean dauden oztopo edo traba guztiak gainditzeko proposatzen diren helburuak⁷. Gauzak horrela, beste errekurso batzuen presentzia behar da, esate baterako, bilera psikologikoena, gaztelerazko klaseena eta egunerokotasunerako tresnak edukitzeko saioena.

Programa honek Itaka Fundazioaren beste errekurso batekin harreman estua du, hain zuzen ere, Ailara eguneko zentroarekin. Eguneko zentroa jendarteratzera bideratutako zerbitzu bat eskaintzen die haurdunaldian dauden edo haien ardurapean dauden adingabeak dituzten emakumeei, baita babesgabatasun- eta/edo bazterketa-egoera larrian, baliabide pertsonalik gabe eta laguntza soziofamiliarrik gabe daudenei ere. Ailaran parte-hartzen duten profesionalek emakumeei behar duten bidelaguntza eskaintzen diete (arloan judizialean, lan arloan...), nahiz eta Beregaineko pisuetan ez egon. Emakumeentzako ezinbesteko errekurso bilakatu da, pisutik irten eta gero modu lasaiago eta mantsoago batean egokituko baitira egungo errealitatera, hau da, laguntza behar dutenean norbaitengana jo dezaketela aintzat hartzen dute eta horrek haien independentzia prozesua errazten du.

Errekurto hau 2020ko urtarrilean sortu zen, eta ordura arte ondorengo jarduera guztiak, jarraipenik gabe eta leku murriztuetan eskaintzen ziren: oinarrizko ezagutzen prestakuntza, eskola-errefortzua, zeregin erabilgarriak ikasteko tailerrak, adingabeak zaintzeko ikaskuntza-tailerrak, hazkunde pertsonalera bideratutako tailerrak, etab.

⁶ Ikus III. eranskina: emakumeen profila

⁷ Xede bakoitza emakume bakoitzari eta honen erritmoari egokitzen da, bakoitzak dituen beharizanen eta problematikaren arabera.

Eguneko zentroan gaztelania jorratzen den arren, emakume gehienak Ojala programara bideratzen dituzte. Alfabetizazio mailaren arabera, Bilboko zentro ezberdinetan emango dituzte klaseak, batzuek San Frantzisko auzoan eta beste batzuek Eskolapioak eskolan. Honen helburu nagusia gaztelania mintzatuaren ulermen- eta adierazpen-maila ona lortzea da haien egunerokotasunean, adibidez, merkatura joatean saltzaileei ulertu ahal izateko. Ez hori bakarrik, harreman berriak eraiki ahal izateko eta lan munduan aukera anitzagoak izateko aukera ere ematen die.

Gauzak horrela, errekurtsoren helburuak bete ahal izateko eta familien ongizatea eta garapena ahalik eta egokiena izateko, Beregainek Itaka-Fundazioaren barne dauden beste errekurtsorik batzuekin lan egiten du, besteak beste, Ojala errekurtsorekin (alfabetizazio-klaseak) eta Ailara eguneko zentroarekin. Egunerokotasunean, fundaziotik at dauden beste profesionalekin ere harremanetan daude, abokatuekin, Erain zentroko psikologoarekin, ikastetxeekin, haur eskolekin, psikomotrizitate terapia daramaten elkarteekin (Inurri, Bizirik,...), etab. Familia bakoitzaren beharren eta egoeraren arabera, agente ezberdinekin kontaktuan jarri ohi dira.

Fundazioaren nondik norakoak argi utzi ondoren, erakundeko zein adarrekin lan egingo den azaltzea garrantzitsua da. Zehazki Beregain eta Ailara programetako emakumeekin lan egingo da, Beregainek eskaintzen dituen pisuetako emakumeek Ailaran parte-hartzen baitute, baina Ailaran parte-hartzen duten guztiak ez dira zertan beste errekurtsoran egon. Dena den, bi programetako emakumeak kontuan hartzea erabaki da antzemandako beharrezana berbera baita guztiengan.

Horretaz aparte, Ailara programarekin ere lan egitea ikusi da, izan ere, emakumeek ezagutzen duten espazioan lan egitea hobesten da⁸. Horregatik, Bilbon burutuko da proiektua, zehazki, Ailarako eguneko zentroan. Hori kontuan harturik, Ailara leku estrategikoan kokatuta dagoela argia da. Bilboko Barrainkua kalean kokatuta dago, erdigunetik hurbil eta emakumeentzako eskuragarri.⁹ Nahiz eta lokalizazio fisikoa Bilbon kokatzen den, Bizkaia osoko pertsonak artatzen dira¹⁰.

⁸ Emakumeek ezagutzen duten lekua izatea hobesten da; alde batetik, espazioa ezagutzen dutelako, eta horrek erosotasuna bultzatuko duelako, eta beste alde batetik, hurbil dagoelako.

⁹ Bizikidetzaren unitateetatik 10-15 minutura dago, eta haurren eskoletatik 5 minutura.

¹⁰ Ikus IV. eranskina: Ailara eguneko zentroaren kokalekua

Egia da emakume hauen aurreko bizilekua ezin daitekeela herri batera mugatu, momentu honetan dauden emakume gehienak Bilbotik at bizi baitziren. Errealitatea zein den antzemanda, Bizkaian ematen diren kasuekin lan egitea ikusi da.

Horiek horrela, guraso bakarreko familiak aurrera eramaten dituzten bost emakumek parte-hartuko dute, denak adin nagusikoak. Bost emakumeetatik lau atzerritarrak dira, %60 afrikarra eta %20 latinoamerikarra. Ondorengo 1. taulan emakume bakoitzaren zehaztapenak daude.

1. taula

Parte hartzaileen zehaztapenak

| Parte hartzaileak | Adina | Jatorria | Haurrak |
|-------------------|-------|-----------|---------|
| Emakumea 1 | 20 | Sestao | Bai (1) |
| Emakumea 2 | 28 | Marruecos | Bai (1) |
| Emakumea 3 | 35 | Marruecos | Bai (2) |
| Emakumea 4 | 24 | Marruecos | Bai (1) |
| Emakumea 5 | 23 | Bolivia | Bai (1) |

2. 2. Diseinua/plangintza

2. 2. 1. Beharrianak identifikatzea, justifikatzea eta lehenestea

Praktikaldiak aurrera egin ahala, behatzaile moduan zenbait egoeren berri izaten zen, eta honi esker, hainbat beharrian identifikatu ziren, horien artean, umorearen beharra. Dena den, behaketa ez da beharra identifikatzeko eta justifikatzeko erabili den teknika bakarra, hezitzaile taldeak eman duen informazioak ere funtsezko papera izan du. Gauzak horrela, hausnartutako beharra erreal dela eta honekin esku-hartu daitekeela jakiteko, astelehenero talde bileretan era multidiziplinarrean jardun da, bai hezitzaile taldearekin, bai psikologia taldearekin.

Modu honetan, behatutakoa asetzeko plangintza aurrera eraman daitekeenaren aukera ikusi eta onartu da.

2. 2. 2. Beharrizanak helburu bihurtzea

Ekintza guztiek bezala, proiektu honek ere bere helburuak ditu. Identifikatutako beharrari konponbidea emateko, helburuak oso argiak izan behar dira, eta une oro, ekintza bakoitzean, presente egon behar dira. Hauen artean, orokorrak eta zehatzak daude, garrantzi maila berdina dutelarik (2. taula).

2. taula

Helburu orokorrak, zehatzak eta eragileak

| HELBURU OROKORRA | HELBURU ZEHATZAK | HELBURU ERAGILEAK |
|--|---|---|
| 1. Emakumeek sentitzen dituzten kudeatzera hurbilpen bat ematea. | 1. 1. Frustrazioarekiko tolerantzia lantzea. | 1. 1. 1. <i>Mezulariaren fabula</i> oinarri izanda, frustrazioaren aurrean eduki beharreko jarrera lantzea. Adierazlea: dinamika burutzea. |
| | 1. 2. Egunerokotasunari begira, kontrol pertsonala sendotzea. | 1. 2. 1. Umorearen prismaren bitartez, estresa eta beldurra kontrolatzen ikastea. Adierazlea: dinamika burutzea. |
| 2. Konfiantza lantzea egunerokotasunaren trabetan aurrerapenak lortzeko. | 2. 1. Pentsamendu irrazionalen bazterketarekin, autokontzeptuaren sendotzea eskuratzea. | 2. 1. 1. Sentitzen dutenarekin, eta sentimendu horrek sorrarazten dituen emozioekin lan egitea. Adierazlea: dinamika burutzea. |
| | 2. 2. Epaitua ez sentitzearen sentimendua izatea. | 2. 2. 1. Genero indarkeria pairatu duen emakume baten hitzaldia. Adierazlea: hitzaldi bat. |
| 3. Bi pisuetako emakumeen artean sareak sortzea. | 3. 1. Haien artean hurbiltasuna ematea. | 3. 1. 1. <i>Bonoaren txapela</i> dinamikaren bitartez, guztien artean erabaki batera iristea. Adierazlea: dinamika burutzea. |
| | 3. 2. Desinhibitzea. | 3. 2. 1. Zentzurik gabe barre egiten hastea. Adierazlea: dinamika burutzea. |
| | | 3. 2. 2. Agertoki bat sortzea, non bakoitza nahi duena izan daitekeen. Adierazlea: dinamika burutzea. |

2. 2. 3. Esku-hartzeko aukera metodologikoa proposatzea

Atal honetan, proiektu osoaren prozedura nolakoa izango den adieraziko da, beti ere, praktika onen hamar irizpideak¹¹ eta garapen jasangarriaren lehenengo eta bosgarren helburuak kontuan izanik. Lehendabizi, proiektua aurrera eramán ahal izateko, ezinbestekoa da burutuko den pertsonekin dagoen harremana zer motatakoa den aztertzea. Faktore honek esku-hartzeko era guztiz baldintzatuko du, horren arabera, ekintzak era batekoak edo bestekoak izango baitira. Kasu honetan, eragile hau onuragarria da proiektuarentzat, aurretik ezagutzen ditugun emakumeekin egingo baititugu tailerrak, hortaz, prozedura errazagoa izango da.

Emakumeekin dagoen harremana aprobetxatuz, metodologia horizontala onuragarria izango da taldearen bilakaerarako. Hezkuntza horizontala ezagutza batera eraikitzea ahalbidetzen duen egitura gisa definitzen da, hezitzaileei eta hezigaiei informazio eta metodologiaren ekarpena egiteko aukera emanez (Mead, 1970; in Sierra-Polanco, 2019). Modu honetan, elkarrekiko trukearen bidez, alde bakoitzak emaila eta hartzaile papera hartzen du ikaskuntzaren une desberdinetan. Freirek (Lucio et al., 2018) proposatutako metodo honek lan-ezberdintasunak markatutako giza harremanak eraldatzeko etengabeko kezka zeharkatzen ditu; eta honi esker, hezitzailea prozesu akademikoaren gidari izatera pasatzen da eta hezigaia agente aktibo izatera (Sierra-Polanco, 2019).

Bigarrenik eta metodologia horizontalaren ondorio gisa, hezitzaileen jarrera positiboa eta parte-hartzea izango dira metodologiaren oinarri nagusienetarikoak. Emakumeekin aurretik emandako denbora guztian, hezitzaileen jarrerak haiengan duen transzendentzia zer nolakoa den aztertzeke astia egon da, eta behaketa horren ondoren, eragile hau edozein esku-hartzetarako ezinbesteko faktore bihurtu da. Horrez gain, hezitzaileen parte-hartze aktiboak haien partaidetzarako gogoak piztuko ditu; beste era batera esanda, parte-hartzea sustatzen bada, eraldatzeko aukerak indartzen dira, bai banaka, bai taldean, bizi-baldintzak erabat hobetzeko autonomia eta independentzia gero eta handiagoak sortuz (Abarca, 2016).

Esan bezala, dinamizatzaileek emakumeak ezagutzen dituzte eta honek musikak haiengan duen garrantzia zer nolakoa den ikusteko aukera eman du. Horregatik, metodologian musikaren alderdia ezinbestekoa dela balioetsi da. Janatak (2009; in

¹¹ Ikus V. eranskina: praktika onen irizpideak

Cervantes, 2013) musika entzutean garuneko zein eremu aktibatzen diren aztertzen du, garuneko jarduera gehien duten eremuak oroitzapen autobiografikoak prozesatzen diren garuneko eremuekin erlazionatzen diren berberak direla frogatuz, oroitzapen horiekin lotutako sentimenduak gogora ekar ditzakeelarik. Horri musika haien egunerokotasunaren parte dela gehitzen bazaio, ekintzen bilakaeran ezinbesteko tresna bihurtuko da.

Laburbilduz, erabiliko den metodologia hurbiltasunean oinarrituko da, hau da, metodologia horizontala eta parte-hartzailea sustatuko da.

2. 2. 4. Esku-hartzearen plangintza

Jarduerak

Jakina denez, ekintza orok egitasmoren bat du oinarritzat; horregatik, aurretik aipatutako helburuak lortu ahal izateko martxotik apirilera doan kronograma¹² bat proposatu da ekintza desberdinak jorratzen dituen¹³.

Baliabideak

Planteatutako proiektua burutu ahal izateko, fundazioko hezitzaileekin zein beste elkarte batzuetako langileekin kohesioa izatea funtsezkoa da. Horiek horrela, zein baliabide eskura dauden jakin beharra dago,¹⁴ proiektua proposatutako eran egitea bideragarria den ala ez jakiteko.

- Giza baliabideak. Alde batetik, kontratatutako langileak egongo dira eta beste alde batetik, fundazioko ekintzetan parte-hartu ohi duten boluntarioak.
- Baliabide materialak. Espazio fisikoa, aurretik aipatu bezala, fundazioak duen eguneko zentroa (Ailara) izango da; beraz, ez da alokairuan eta altzarietan pentsatu beharko. Ailaran astean zehar ekintzak egiten direla kontuan harturik, soberan dagoen materiala erabiliko litzateke tailerretarako.

Aurrekontua

Proiektua erakundearen barruan egingo dela aprobetxatuz, honek eskaintzen dituen baliabideak eta zerbitzuak eskura izango dira; beraz, proiektuaren gastuak¹⁵ ez dira hain altuak izango. Dena den, kontuan hartu behar da fundazioak aldundiarekin eta

¹² Ikus VI. eranskina: ekintzen kronograma

¹³ Ikus VII. eranskina: ekintzen zehaztapenak

¹⁴ Ikus VIII. eranskina: baliabideen zehaztapenak

¹⁵ Ikus IX. eranskina: proiektuaren gastuak

beste zenbait zerbitzurekin hitzarmenak adostuak dituela, jasotzen dituen diru-laguntzez gain.

2. 2. 5. Ebaluazioa

Proiektu baten amaiera bera bere osotasunean ebaluatzen denean ematen da, hau da, finkatutako helburuak bete direla, ekintzek helburuak betetzen dituztela, baliabideak egokiak direla, aurrekontua ondo dagoela, etab. frogatzen denean. Hala ere, proiektua ebaluatzeko bi eragile nagusi kontuan hartu behar dira: efikazia eta eraginkortasuna. Bi hauek neurtu ahal izateko, adierazleak garrantzitsuak dira, hots, helburuak betetzen direla ziurtatzen duten ekintzak. Kasu honetan, egokiena, ebaluazio jarraia egitea ikusi zen; bata hasierakoa, bestea tartekoa, eta azkena, amaierakoa.

Hasierakoan, ideien zaparrada¹⁶ erabili zen tresna gisa. Hiru koloretako positak banatu ziren (berdeak, horiak eta gorriak). Horian, haietzako umorea zer zen eta eguneko zein unetan erabiltzen zuten idatzi zuten; berdean, tailer hauek haiengan izan zitzaketen onurak idatzi zituzten; eta gorrian, aldiz, umorearen alderdi negatiboak. Horrela, umoreari eta bere eraginkortasunari buruz zuten hasierako pentsamenduaren berri izan zen.

Tartekoan, barremetroa erabili zen. Erdiko bi tailerrak ebaluatzeko erabili zen. Modu honetan, aurrez planteatutako helburuak betetzen ziren ala ez ikusi zen eta horren arabera tailerrak aurkeztutako egoera berrira moldatu ziren. Barremetroa termometro handia zen eta tailerrean sentitu eta gozatu zutenaren arabera, tailerren amaieran denen artean bete zuten. Iradokizunen postontzi bat ere eskuragarri izan zuten, norbaitek anonimoki keza edo proposamenen bat adierazi nahi izatekotan.

Amaierakoan, aldiz, hasierakoan egindako metodo bera erabili zen, baina giro informalagoa sortuz. Hasierako galdera berberak planteatuko ziren, eta horiei buruzko eztabaida txiki bat egin ondoren, hasierako erantzunak kartulina meheetan eraman ziren. Modu honetan, hasierako ebaluazioarekin alderatu eta hasierako pentsamenduan aldaketarik egon zen ala ez antzeman zen, eta aldi berean, helburuak bete ziren ala ez. Bukaerako ebaluazioa osatzeko eta wordkafea eramangarriagoa egiteko, Dixit karta jolasa erabili zen. Dixit kartak ilustraziozko kartak dira, baina ez dira marrazki sinpleak, irudimenez jositako marrazkiak dira. 83 karta ezberdinez osatutako karta sorta da, eta bi

¹⁶ Ikus X. eranskina: ebaluazioaren zehaztapenak

aukeratu behar izan zituzten: bata, lehenengo tailerrean sentitu zutena deskribatzen zuena, eta bestea, azkenengo tailerrean sentitutakoa. Kartek transmititzen ziena azalduz eta haien erantzuna justifikatuz, ebaluazioari bukaera eman zitzaion.

Hiru etapa hauez gain, prozesu guztian zehar behaketa parte-hartzailearen ebaluazioa kontuan hartu zen. Beste era batera esanda, behaketa parte-hartzailearen informazioa biltzeko metodo interaktibo bat da, eta ikuslea behatutako gertaeretan inplikatzeko eskatzen du; izan ere, aztertutako errealitatearen pertzepzioak lortzea ahalbidetzen du, eta nekez lor genitzake modu afektibo batean inplikatu gabe (Rodríguez, Gil eta García, 1996; in Rekalde, Vizcarra eta Mazacaga, 2014). Esan bezala, bi hezitzaileen behaketaren bidez¹⁷, tailer bakoitzaren ostean hezitzaile taldearekin bildu zen era informalean, eta adostutako helburuak bete ziren edo ez zirenen inguruan mintzatu ziren.

2.3. Abian ezartzea

Proiektua bukatutzat emanda, esku-hartzearen balorazio erreal eta osotua egin da. Horretarako eta aurretik aipatu bezala, tresna gisa behaketa erregistroak eta ebaluazio jarraia erabili dira. Hauen bitartez, esku-hartzean zehar, ekintzak moldatzen joan dira ikusten ziren beharrezan eta jarreraren arabera. Era berean, moldaketa hauek, aurretik planteatutako helburuak betetzeko balio izan dira, baita emakumeen erosotasunerako ere. Nahiz eta helburuak era ezberdinean bete diren, batzuk beste batzuk baino modu aberatsagoan burutu dira, egun batzuetarako planteatutako asmoak asetzea ez baita beti posible izan. Dena den, ikuspegi orokor batetik, esku-hartzearen prozesua arrakastatsua izan dela esan daiteke.

Zalantzarik gabe, behaketa erregistroen bitartez informazio handia jaso da. Alde batetik, nahiz eta jarduerak zenbait aldiz aldatu diren, oztopo linguistikoak antzeman dira, eta horrek, noizbehinka, emakume batzuen parte-hartze pasiboa sustatu du. Beste alde batetik, tailer batzuek beste batzuek baino efektibotasun handiagoa izan dutela ikusi da, baina kontuan hartzekoa da emakume horiek beren "bizi-motxilaren" pisuari aurre egin behar diotela, eta horrek, egoera askotan, zaildu egin duela jarduerak eta dinamikak eraginkortasunez garatzea. Aurreko guztiari emakume gehienak Ramadan

¹⁷ Ikus XI. eranskina: behaketa erregistroaren txantiloia

garaian egon zirela gehitu behar zaio eta hori esanguratsua izan da haien joera ebaluatzeko orduan.

Dixit karta sortaren bidez helburu hauen betetze prozesua nolakoa izan den argi eta garbi ikusi da. Emakumeek bi karta aukeratu zituzten, bata esku-hartzearen hasieran nola sentitzen ziren deskribatzen zuena eta bestea esku-hartzearen bukaeran. Orokorrean, emakume guztien prozesua antzekoa izan da, hasierarako aukeratutako karta gehienak askatasuna eta aldi berean beldurra deskribatzen zuten kartak izan baitziren. Askatasuna, norberaren egoera gainontzekoek bizi izanaren ahizpatasun sententzioagatik, eta beldurra, bakoitzak bizitako esperientziengatik eta hauek haiengan sorrarazitako sentipenengatik. Hari beretik, esku-hartzearen bukaerarako aukeratu beharreko kartetan, segurtasuna eta norberak bere buruarekiko edukitako erosotasuna deskribatu zuten. Hausnarketarako eta motibaziorako espazio bihurtu zela ere aipatu zuten, azken finean, guztiek zeukaten zer esan eta bakoitzaren esperientziak entzunda, bata bestearengandik indarrak hartu zituzten. Ispilutik ateratzearen metafora ere erabili zuten, errealtatearen ikuspegiaren aldaketari erreferentzia eginez.

Zehatz-mehatz esan zutena idatziz hartzeko asmoarekin, emakumeen ahotsak grabatu ziren, izan ere, grabatzeak informazio oso zehatza ahalbidetu zuen, bai ebaluaziorako bai hobekuntzak egiteko. Honen bidez, saioen eta guztien parte-hartzearen inguruan kritika sakona burutu zen¹⁸.

Esku-hartzearen ezartzea izan den prozesu honi bukaera eman nahian, garrantzitsua da aipatzea ez zutela haien gauza eskusibo gisa bizi izan, baizik eta dinamizatzaileak ere barne hartzen zituen bilakaera bezala. Guztien artean eta umorearen laguntzarekin, izaera kolektibo eta indibidualaren ikuspegia aldatu da, aurreikusitako helburuak lortuz.

3. Ondorioak

Zenbait artikulua eta eskuliburu irakurri ostean, umorearen eta gaitasun sozioemozionalen arteko lotura gutxi aurkitu dira; hala ere, GRAL honen bitartez, Damiánek (2016) esandakoa frogatu eta martxan jarri da. Jakin izan denez, umoreak funtzio pedagogikoa izateaz gain, arazo sozialei aurre egiteko funtzioa ere badu, beste era batera esanda, konpetentzia sozioemozionalak garatzeko funtzioa (Damián eta

¹⁸ Ikus XII. eranskina: ahotsak grabatzeko baimenak

García, 2010). Hari beretik, frustrazioarekiko tolerantzia bultzatzen du, eta honek, arazoaren inguruan mintzatzeko leku segurua eta honekiko ikuspegia aldatzeko aukera eskaintzen die (Damián, 2016), kasu honetan, emakumeen kudeaketa emozionala lortuz.

Teoria eskuetan edukita, umorearen bitartez kudeaketa emozionala eta arazoaren inguruan mintzatzeko leku segurua lortzea posible dela frogatu da. Horretarako, ekintza ezberdinak dituen esku-hartzea diseinatu da. Esku-hartzea bukatutakoan egindako ebaluazioaren bidez, umoreak haiengan eduki duen talka igarri da. Hasiera batean umoreak eduki zitzakeen funtzioez galduta zeuden, eta amaieran, honek dituen onurez jabetu dira eta haiengan eragina izan dute. Amaierako ebaluazio honetan, haien prozesuaren bilakaera asko nabarmendu da; izan ere, hasiera batean, umorearen inguruan dauden mitoak baino ez zituzten ezagutzen, eta umorearen ikuspuntu aldaketarekin, frustrazioari aurre egiteko eta kudeaketa emozionala lortzeko teknikak lortu dituzte. Hau ikusi eta gero, emakumeen egunerokotasunean tailerretan aurrera eramandako dinamika praktikan jarri dituztela antzeman da, saioetan aipatutakoa bizitzen dituzten egoeretan aplikatuz.

Bestalde, Palencianok (2018), umorearen ohiko funtzioari ahalduntzearen funtzioa gehitzen dio egiten dituen bakarrizketetan, barregura eragiteaz gain, ahalduntzeko arma gisa ere erabil daitekeelako. Bere metodologiaren bidez, emakume askori indarra eta balorea transmititzea du helburu, indarkeria-harremanak identifikatzeko jarraibideak emanez eta genero-indarkeria pairatzearen egoeratik irteteko aukera dagoela erakutsiz. Gauzak horrela, Pamela Palencianorekin izandako hizketaldiak, orokorrean, inpaktu handia eduki zuen emakumeengan eta bizi izan duten egoera ikusteko eta ulertzeko eran aldaketak eman ziren. Gezurra dirudien arren, Palencianok emandako jarraibideak sakon barneratu zituzten eta indarkeria harremanen bat edukitzekotan kontuan hartzekoak zirela ulertu zuten. Horrez gain, dinamiken eta Palencianoren laguntzarekin, umorea sufritzen dutena adierazteko baliagarria dela ikusi zuten, hau da, errealitatea bizitzeko modua umorearen bidez eraldatzen ikasi zuten.

Horrenbestez, umorearen funtzio pedagogikoak bazterketa egoeran dauden emakumeen bizimoduan aldaketak dakartza, bai errealitatea ikusteko eran, bai garapen sozioemozionala lortzeko eran. Aldi berean, emakumeen arteko erlazioek hobera egin dute, konfiantzazko eta segurtasunez beteriko espazioa sortu baita. Hitz gutxitan esanda,

dinamika egokien bitartez umoreak dituen funtzio pedagogikoak erabilgarriak dira bazterkeria egoeran dauden emakumeentzat.

Esan beharra dago, esku-hartze honen bitartez, hasiera batean aipatutako Garapen Jasangarriko Helburuak bete direla baieztatzen dela. Pobrezia desagertzearen bidean, saio hauen bidez, babes soziala eta zerbitzuak eskaini zaizkie emakumeei (Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusia, 2015); beraz, helburu gisa bete dela esan daiteke. Bestalde, pobrezia feminizazioaren fenomenoari loturik doan heinean, emakumeen ahalduntze prozesua lortu da, hauek jasan dituzten zenbait egoera tratatuz.

Aurreko guztia laburbilduz, umoreak duen funtzio pedagogikoaren bidez, aurrez planteatutako helburuak arrakastaz bete dira, eta aurkeztu zaizkien bazterkeria egoera ezberdinez jabetu dira GJH lortuz.

4. Erreferentzia bibliografikoak

- Abarca Alpizar, F. (2016). La metodología participativa para la intervención social: Reflexiones desde la práctica. *Revista Ensayos Pedagógicos*, 11 (1), 87-109. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5585469>
- Alonso, J. I. eta Marcos, L. (2017ko otsaila). *Desheredados. Desigualdad infantil, igualdad de oportunidades y políticas públicas en España. Anexo Euskadi. Save the Children* España. https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/save_the_children-anexo_vasco_espanol_web.pdf
- Alvarez Muguruza, I. (2017). Otras risas son posibles el humor: una herramienta política de resistencia feminista [GrAL, Euskal Herriko Unibertsitatea]. ADDI biltegia. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/27758/TFG_Alvarez_Muguruza_Iraide.pdf?sequence=2&isAllowed=y
- APRAMP, Asociación para la Prevención y Reinserción de la Mujer Prostituida (2005). La prostitución claves básicas para reflexionar sobre un problema. http://www.mujaresenred.net/IMG/pdf/prostitucion-claves_basicas.pdf
- ASEDES eta CGCEES (2007). *Código Deontológico del educador y la educadora social*. Eduso. <https://www.eduso.net/wp-content/uploads/2019/11/Documentos-profes-Sept-2007.pdf>
- Assiego, V., eta Ubrich, T. (2015). *Más solas que nunca. La pobreza infantil en familias monomarentales*. Save the Children España. https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/mas_solas_que_nunca.pdf
- Ayuntamiento de Rivas Vaciamadrid. (2018ko abenduaren 13a). *Palenciano: “El humor feminista se ríe del poder”* [Prensa-oharra]. <https://www.rivasciudad.es/noticias/organizacion-municipal/2018/12/13/palenciano-el-humor-feminista-se-rie-del-poder/862600047544/>
- Britos, P. (2009). ¿Por que la prostitucion debe ser un trabajo sexual?. *A Parte Rei. Revista de Filosofía*, (66). https://www.researchgate.net/profile/Patricia_Britos/publication/40617812_Por_que_la_prostitucion_debe_ser_un_trabajo_sexual/links/5ef4c68992851c52d6fac2bc/Por-que-la-prostitucion-debe-ser-un-trabajo-sexual.pdf
- Brück, C. eta Diaz, G. (1988). *Acerca del humor*. Buenos Aires, Argentina: Tekne.
- Camacho, J. (2015). Exclusión social. *Eunomía. Revista en Cultura de la Legalidad*, (7), 208-214. <https://e-revistas.uc3m.es/index.php/EUNOM/article/view/2242/1178>
- Cardona Pérez, E. (2014). Mujeres Marroquíes a Cargo de Familia Monoparentales en Mallorca [Gradu Amaierako Lana]. Dspace UIB. <https://dspace.uib.es/xmlui/bitstream/handle/11201/888/Cardona%20Perez%20Esther.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Carrasco Fernández, S. (2018). *Pobreza y Exclusión Social desde la perspectiva de género en la Comunidad Autónoma de Euskadi: analizando los procesos de empobrecimiento y exclusión social de las mujeres a través de sus discursos* [Doktoretza-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. ADDI biltegia. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/36132/TESIS_CARRASCO_FERNANDEZ_SONIA.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Carretero Palacios, A. (2014). *Migraciones y género. La feminización de la migración transnacional*. Consejería de Justicia e Interior.

- https://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/migraciones_genero.pdf
- Cervantes Fructuoso, R. (2013). *La música como herramienta para la educación a través de los sentimientos* [Gradu Amaierako Lana, Universidad Internacional de La Rioja]. Reunir biltegia.
https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/2000/2013_07_18_TFG_ESTUDIO_DEL_TRABAJO.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Comisión Económica para América Latina y el Caribe (2004). *Dimensiones de la pobreza y políticas desde una perspectiva de género*.
<https://www.cepal.org/mujer/reuniones/quito/iarriagada2.pdf>
- Costa, M. (2006). Distintas consideraciones sobre el Binarismo Sexo/Género. *A Parte Rei. Revista de Filosofía*, (46). <http://serbal.pntic.mec.es/~cmunoz11/malena46.pdf>
- Damián Fernández, J. (2014a). Pedagogía del Humor: El Valor Educativo del humor en la Educación Social. *Revista de Educación Social*, 18.
https://www.eduso.net/res/pdf/18/taller7_res_18.pdf
- Damián Fernández, J. (2014b). El humor prosocial en la gestión de emociones positivas. *Revista educación y futuro digital*, 9, 38-46.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4998803>
- Damián Fernández, J. (2016, azaroak 17). *VIII Jornada de Educadores Sociales de Centros Penitenciarios*. Barcelona.
http://cejfe.gencat.cat/web/.content/home/formacio/gestcon/cop/educadors/educadors2016/viii_jorn_educadors_fernandez_solis.pdf
- Damián Fernández, J. eta García, J. (2010). *El valor pedagógico del humor en la Educación Social*. Descleé de Brouwer.
- Davidson, J. (1998). *Prostitution, power and freedom*. University of Michigan Press.
- De la Cal Barredo, M. L. (2009). Avances metodológicos para el análisis y la comprensión de la desventaja social femenina. *Revista Internacional de Organizaciones (RIO)*, (3), 29-47.
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15327/RIO%20n.3%20-%20Avances%20Metodologicos.pdf?sequence=3&isAllowed=y>
- Díaz, L., Pares, M. eta Pomeroy, M. (2007). Criterios para detectar buenas prácticas en procesos participativos. *Guía para la Detección de Buenas Prácticas en Procesos Participativos*, 14-39. <https://dhls.hegoa.ehu.eus/documents/5027>
- Droin, R. (1993). *La calidad con la sonrisa*. Bilbao, Euskal Herria: Deusto.
- Ellis, A. eta Grieger, R. (1981). *Manual de terapia racional-emotiva*. Bilbao.
- Emakunde (2018). *La Evaluación de Impacto en Función del género en el ámbito de la exclusión social y pobreza*.
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/exclusion_pobreza_es.pdf
- Espainiako Gurutze Gorria (2003). *Criterios para la detección y selección de buenas prácticas*.
http://www.cruzroja.es/pls/portal30/docs/PAGE/SITE_CRE/ARBOL_CARPETAS/B_B_QUE_HACEMOS/B10_INTERVENCION_SOCIAL/POBREZA/PRACTICAS/03-CRITERIOS%20DE%20BUENAS%20PRACTICAS.PDF
- Espainiar Gobernuko Berdintasun Saila (2019). *Macroencuesta de Violencia contra la Mujer* 2019.
<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/macroencuesta2015/Macroencuesta2019/home.htm>
- Eusko Jaurlaritzeta eta Emakunde. (2020). *Estrategia eta Ekintza Plan Eragilea Euskadin*

- Soldata-Arrakala murrizteko.
https://bideoak2.euskadi.eus/2018/11/27/news_50486/Estrategia_eta_Ekintza_Plana_SOLDATA-ARRAKALA.pdf
- Eustat (2020). *Ordaindu gabeko etxeko lana eta zaintzak* [Prensa-oharra].
https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_260/opt_2/tipo_10/temas.html
- Federici, S. (2017). *Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak* (A. Astobiza, trad.). Katakarak liburuak
- García Colmenares, P. (2016). Historia de la marginación y desigualdad en el trabajo de las mujeres en la España contemporánea. *Publicaciones de la Institución Tello Téllez de Meneses*, 87, 7-36. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5897635>
- Google (d.g.). *Google Mapsen argibideak.* Google Maps.
<https://www.google.es/maps/place/Calle+Barraincua+Kalea,+5,+48009+Bilbao,+Vizcaya/@43.2660979,-2.9351574,17z/data=!3m1!4b1!4m5!3m4!1s0xd4e4fd964631b7b:0xb53d043bf49e819c!8m2!3d43.2660979!4d-2.9329687>
- Instituto Nacional de Estadística. (2015, maiatzak 26). *Encuesta Condiciones de Vida 2014* [prensa-oharra]. <http://www.ine.es/prensa/np908.pdf>
- Itaka-Eskolapioak Fundazioa (2017). *Memoria Itaka-Eskolapios 2017-2018*. Bilbo.
- Itaka-Eskolapioak Fundazioa (2018). *Memoria Itaka-Eskolapios 2018*. Bilbo.
- Juliano Corregido, M. D. (2002). *La prostitución: el espejo oscuro*. Icaria.
- Kabeer, N. (1997). Revisiting the Links Between Gender and Poverty. *IDS Bulletin*, 28 (3), 1-13.
https://opendocs.ids.ac.uk/opendocs/bitstream/handle/20.500.12413/9696/IDSB_47_1A_10.190881968-2016.118.pdf?sequence=1
- Klein, A. (1988). *¿Y tú de qué te ríes?*. Barcelona, Cataluña: Ediciones B.
- Loureda, C. (2018ko azaroaren 21a). 'No solo duelen los golpes', de pamelala palenciano, teatro que debería ser reembolsado por la seguridad social. Fotogramas.
<https://www.fotogramas.es/noticias-cine/a25224186/no-solo-duelen-los-golpes-pamelala-palenciano-teatro-critica-violencia-machista/>
- Lozoya Gómez, J. A. (2016). Privilegios masculinos. *Emakunde*.
https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/gizonduz_dokumentuak/es_def/adjuntos/2016.03.18.privilegios.masculinos.pdf
- Lucio, R., et al. (2018). *Formación docente y pensamiento crítico en Paulo Freire*. [Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales]
http://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/se/20181113025736/Formacion_docente_Paulo_Freire.pdf
- Martínez Torres, M. (2005). *Feminización de la pobreza: un análisis dinámico* [Universidad Complutense de Madrid]. E-Prints Complutense biltegia.
https://www.ief.es/docs/destacados/publicaciones/papeles_trabajo/2005_11.pdf
- Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusia (2015). *Agenda 2030*.
http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/AGENDA_2030_EUSKADI.pdf
- Perela Larosa, M. (2010). Violencia de género: violencia psicológica. *Revista de ciencias jurídicas y sociales*, (11-12), 353-376.
<https://revistas.ucm.es/index.php/FORO/article/view/37248/36050>
- Pérez Viejo, J. M. eta Montalvo Hernández, A. (2011). Violencia de Género. Prevención, detección y atención. *Grupo* 5.
https://issuu.com/editorialgrupo5/docs/libreto_violencia_de_genero_prevenicion_de_tecci_n
- Poleo Gutiérrez, J. (2016). *Comunicación y Exclusión Social* [Doktoretza-tesia,

- Malagako Unibertsitatea]. RIUMA biltegia.
https://riuma.uma.es/xmlui/bitstream/handle/10630/12155/TD_POLEO_GUTIERRE_Z_Francisco_Javier.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Quintero, G., Morales, F., Tamarit, J. M. eta García, R. (2008). *Comentarios al Código Penal*, 752. Editorial Aranzadi.
- Rekalde, I., Vizcarra, M. T. eta Mazacaga, A. M. (2014). La observación como estrategia de investigación para construir contextos de aprendizaje y fomentar procesos participativos. *Educación XXI*, 17 (1), 201-220.
<https://www.redalyc.org/pdf/706/70629509009.pdf>
- Ribas Bonet, M. A. (2004). *Desigualdades de género en el mercado laboral: un problema actual*. Departament d'Economia Aplicada Universitat de les Illes Balears.
https://dea.uib.cat/digitalAssets/128/128260_4.pdf
- Rodríguez Idígoras, A. (Ed.) (2002). *El valor terapéutico del humor*. Bilbao, Euskal Herria: Desclée de Brouwer.
- Romo Donaire, A. M. (2007/2008). *Imagen corporal, alimentación y calidad de vida* [diapositiben aurkezpena].
<https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/3765/1/PowerPoint%20-%20TEMA4.pdf>
- Sánchez Blanco, E. (2012). *La prostitución desde una perspectiva de género*. [Departamento de Teoría de la Señal y Comunicación Universidad de Vigo].
Investigo biltegia.
https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/40723/Pages%20from%20Investigacion_Genero_12-1509-2188-6.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Sierra-Polanco, T. E. (2019). Educación Horizontal: sobre las jerarquías tradicionales en la Enseñanza de las Ciencias Exactas. *Revista Científica*, Extra 1, 48-62.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7021312>
- Valcarce, M. (2000). Servicio de violencia familiar, maltrato, violencia psíquica, lesiones psíquicas. *Estudios sobre violencia familiar y agresiones sexuales*, 2, 222.